

- 1 Idatzi egoera hauetan adierazten diren zenbaki osoak.


Txori bat hegan doa, itsas mailaren gainetik 12 m-ra.

Arrain bat igerian ari da, itsas mailaren azpitik 23 m-ra.

15 euroko zorra.

Termometroak zero azpitik 12 °C markatzen du.

- 2 Idatzi zenbakiak zenbakizko zuzenean.



- 3 Ordenatu zenbakiak txikienetik handienara.

+4 -3 0 -7 -9 +7

- 4 Ebatzi eragiketak, zenbakizko zuzena erabiliz.


☐	$(+2) + (-5) =$	$(-6) + (+8) =$	$(-8) + (+10) =$	$(+2) + (-9) =$
☐	$(-7) - (+3) =$	$(+5) - (+4) =$	$(-8) - (-10) =$	$(-3) - (-5) =$

- 5 Ander eraikin bateko garajetik atera berri da, sotoko 2. solairutik, eta eraikineko bosgarren solairura doa igogailuan. Zenbat solairu igo behar ditu?
- 6 Erromatar Inperioa K.a. I. mendean sortu zen, eta K.o. V. mendean erori zen. Zenbat mende iraun zuen Erromatar Inperioak?

Lasterketa jauzika

Bota dadoa, birarazi erruleta eta jarraitu adierazitako ibilbideari. Nork irabaziko du?

0 laukian hasiko zara. Jaurti dadoa eta birarazi erruleta. Mugitu dadoak adierazitako kopurua adina lauki eta geziak adierazitako noranzkoan.



- 7 Txominek dadoa jaurti du, eta orain, -4 laukian dago. Eragiketa hauetako zeinek adierazten du zer laukitan dagoen?
- A. $0 - (+4)$ B. $(+4) - 0$ C. $(+4) - (+4)$ D. $(-4) + (+1)$
- 8 Zer noranzko eta zer zenbaki atera ditu ondoren Txominek, baldin eta orain $+2$ laukian badago?
- A. Eskuinera eta hiru B. Eskuinera eta lau C. Eskuinera eta sei D. Eskuinera eta bost
- 9 Ondoren, Mirenek jokatu du. -1 laukian zegoen, eta dadoa jaurti eta erruleta birarazi ondoren, -4 laukian dago. Zein eragiketak adierazten du nola iritsi den Miren une honetan dagoen lekura?
- A. $(+1) - (+3)$ B. $(-1) + (+3)$ C. $(-1) - (-3)$ D. $(-1) - (+3)$
- 10 Orain, zure txanda da, eta 0 laukia duzu abiapuntu. Idatzi zer eragiketa egin behar diren lau jokaldiren ondoren iritsi zaren laukira iristeko. Zer laukitara iritsi zara?

Hasierako laukia	Gezia	Dadoa	Eragiketa	Amaierako laukia
	eskuinera	3		
	ezkerrera	6		
	eskuinera	2		
	ezkerrera	1		